

# “ZAINDUZAITEZ”

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



**Izena:** Zainduzaitez.com

Zainduzaitez proiektua aurkeztu nahi dizuegu. Negozio honen ideian, lau gazte elkartu gara gure gizartea elikatu eta janaritan dirua gastatzeko modua ahalik eta osasuntsuena eta ekonomikoena izan dadin. Horretarako, aplikazio hau sortzeko ideiak, dieta ekonomiko eta osasuntsuak diseinatzen ditu, osasuna eta gure poltsikoa ahalik eta gehien zaintzeko.

Aplikazio honen oinarrian, bezeroak, diru kopuru bat jartzen du, (onartu daitekeen diru kopuru batetik gora, 10€ gutxienez harpidetzeko, eta ondoren erosketaren prezioa) eta diru kopuru honetan oinarrituz, dieta osasuntsu bat sortzea da gure lana.

Dieta hainbat modutakoa izan daiteke, bai egunekoa, bai astekoa edo baita hilabetekoa ere, ordaindutako kopuruaren arabera. Dieta hauek, guztiz ekilibratuak izango dira, hau da, proteina, karbohidrato eta gantz naturalen oreka bat eginez, baita bitamina guztiak kontuan hartuz.

Dieta ezberdinak sortuko ditugu, bezeroen helburua kontuan hartuta, hau da, kirolarientzat, pisua jaisteko, pisua modu egokian igotzeko... eta beste hainbat aukera.

